


# BasetxeSarea martxan



Trapagarango gazteriak badu interneterako atari berria: [basetxesarea.blogspot.com](http://basetxesarea.blogspot.com). Bertan herriko eta gaztetxeko informazioaz gain, iritzia emateko aukera izanen du erabiltzaileak. AZALA>6.

## Basetxe Gaztetxea; aurrera begira

Urriaren 16an burutu zen asanblada orokorrean, gaztetxea kudeatzeko lan-taldeak osatu ziren>7

**IRITZIA**  
>2.

**ARMAGINTZARI EZ**  
>4.

**ESKUBIDEEN  
DEFENTSAN**  
>5.

**ZUTIK EMAKUMEA**  
>8.

**GORPUTZAREKIN  
KOMUNIKATZEN**  
>10.

**AGENDA**  
>11.

**!Z>12.**

## EZKONTZAK ala NEGOZIOA:

### “Ellos dicen mierda, nosotros amen...”

**Boda, marriage, ezkontza ala ezteia. Azken denboran niregandik hurbil egokitu zaizkidan hitzak dira. Adinaren kontuak? Apurka - apurka zahartzen ari garen seinale?** Ez da aspaldi gure institutu garaiak igaro zirela. 15 -16 urtetako lehenengo festa eroak, gaua, txima luzeak, litronak, lehenbiziko ligeak, martins botak, batzuen larruzko txupak, besteen kazadora bakeroak beti tippex edo errotuladorez dekoratuak... Belarritakoen moda eta niki marradunak...Eta “Somos nietos de obreros que nunca pudisteis matar... No somos nada! No somos nada!” kantatzen genuen. Ez genekien bihar zer etorriko zen, ez genuen geroaren kezkarik. Denbora polikiago iragaten zen.

Dantza taldean ibiltzen ginen, beraz San Gabriel auzoko eliza zen gure ensaio leku eta biltokia. Han, jainkoaren babesean (eskerak!), zuten hasiera larunbateko festek, litroek, txistu-metal saio eta mahai gaineko dantzaldiek. Zenbat eta zenbat aldiz? Sarritan igandetan ezkontzetan dantza egiten genuen, ezpata jarri, agintariena, banako eta fandangoa eta ondoren txapela kendu eta bikotea zoriontzera, zorionak, 2 muxu... Ilea galtzen hasia

zen mutilari eta txuriz jantzitako neskari begiratu ez irri egiten genien geure baitarako. “Beste bi morroi” pentsatzen genuen.

Baina joan ziren iragan denborak eta etorri zaizkigu berriak. Orduko lagunak bereiztu gara, batzuk kezka batzuk izan ditugulako, besteok kanpoan ikasi dugulako... Aldatu gara eta norberak geure bidea hartu dugu. Orain lagun horietako batzuk ikusten ditut, korbatan lepoan loturik edo xuriz jantzirik ezkondu beharrean. Poliki poliki lehen barre egiten genion gizarte eredu horrek eskeintzen digun tunel estu horretan barneratuz... Berriz ere: “No somos nada!”

Ez dut ezkontza kristau edo zibilaren arteko eztabaida piztu nahi. Ez da hori gaurko aferak. Baina ezkontza osoa, despedidak, jantziak, bazkari erraldoiak, argazkilaria, itxurakeria, bidaiak, gezurrezko zorionak... Non gelditzen da inprobizazioa eta naturaltasuna? Non maitatzen dituzun lagunekin egiazko ospakizun bat egiteko aukera?

Beraz ezteiak negozio huts bihurtu zaizkigun honetan, zergatik ezkondu? Paperak egitea beharrezkoa dela esango dute batzuek... Bai-

na zertarako horrenbeste handikeria, diru xahuketa, itxurakeria? ez diot zentzu askorik ikusten.

Gizakion bizitzan garrantzizko aldaketak izaten dira gurasoen etxetik kanpo bizitzera joatea, bikotearekin edo bakarrik etxea eraikitzea, haurrak izatea...Ez dut dudarik. Benetan momentu hauek geure bizitzan errotik aldaketak ekarriko dizkigutela, egindako lanaren emaitza ikusten dugulako edo gure bizi proiektua aurrera doala sentitzen dugulako, lagunekin ospatzeko uneak direla uste dut. Baina atera gaitezen gizarteak inposatzen digun plastikozko bide estu horretatik, bizi dezagun momentua, itxurakeriatik urrun eta irabazi dezagun askatasuna. Gure esku dago. Lagun batzuek jada ilea erortzen ari zaie, beste batzuek aldiz oraindik tximak daramatzagu, eta ahal bezain libre bizi garen artean eramanen.

P.D: Larunbatean ezkontzan izanen naiz, ezkontzen zaren hori egiazko lagun zaitudalako, zuretzat inportantea delako eta bihotzez zoriontzeko. Bitartean gizarte prefabrikatu honi... “Ellos dicen mierda, nosotros amen!”

**Tximista**

# IKASLEOK BOLOGNARI EZ!!!!

Askotan entzun dugu Bologna hitza, batez ere azken aldi honetan, baina, badakigu zertaz hitz egiten den hitz famatu hau aipatzen denean???

Bologna Prozesuari hasiera 1998an ematen zaio Sorbonako deklarazioan. Prozesu honekin Europako Hezkuntza Markoa definitu nahi dute, modu isil eta ilun batean, hau da, komunitate unibertsitarioak ez du parte hartzen; jada hartuta dauden erabakiak luzatzen dizkigute. Honela, Europa mailako titulazio homologarrien sistema bakarra inposatu nahi da 2010. urterako.

**Zeintzuk dira bologna Prozesuaren helburuak?**

-Homologazioa: Europar mailako titulazio homologarrien sistema

-Ikasle eta irakasleen mugikortasuna: EBetako helburua: ikasleak Europatik mugitzea langileak mugitzea baino errazagoa da, honekin batera sortu zen Erasmus delako plana duela urte batzuk.

**Helburu hauek lortze bidean, goi mailako hezkuntzaren berrantolaketa bat bideratuko dute eta gure eskubi-deak urratuko dituzte ECTS kreditu-sistemaren bidez.**

**Zer da ECTS kreditua?**  
Definizioz: kurtso batek 60 kreditu ditu, eta kurtso bakoitzean 40 aste egon-

go dira. Aste bakoitzak 40 orduko lana izango du, baina ez da posible, beraz, ECTS kredituak ez dira definitzen Estatu Espainiarreko ordu presentzialen antzera, ikasketa orduen arabera baizik. Beraz, kredituak berdinak badira Europa osoan, herri bakoitzean egon ahal diren behar pedagogikoak ez dira kontutan hartzen.

Noiz arte jasango dugu egoera hau???Ikasle, matxinatu zaitez eta egoerari buelta eman!!!

**Txantxangorri**

Eman iritzia:  
pikotxa@  
gaztesarea.net

IRAGARKIA



AZAROAK 17 USURBILEN IKASLE GAUA 2007!  
OLIBA GORRIAK + LATZEN +  
OJOS DE BRUJO + DELOREAN + EDAN  
21etatik aurrera, FRONTOIAN

Egunean zehar: tailerrak, dantzak, poteoa, herri bazkaria...



# Armagintzari EZ (Ez Bizkaian Ez Munduan)



Kakitzat koordinadora antimilitaristaren Bizkaiko armagintzaren aurkako kanpainaren berri eman nahi dizuegu:

>**SENER (Getxon)**: Ingeniari-tza militarrean dihardu eta "Eurofighter" europar konbate-hegazkinaren osagaiak egiten ditu. Baita ere KEPD-350 "Taurus" Gurutzaldi-misilenak.

>**ITP (Zamudion)**: Eurofighter/Typhoon-en piezak egiten ditu, era berean, "Tigre" Eraso Helikopteroa eta Joint Strike Fighter Ehiza-Hegazkin estatu Batuarra; gainera, Espainiako Defentsa Ministerioaren eta Amerikako Estatu Batuetako, Ingalaterra, Maroko, Egipto, Brasil, Mexiko eta Argentinako Indar Armaturen hegazkin militarren mantentze lanetan dihardu.

>**PRECICAST (Barakaldon)**: Airbus A400M Garraio Militarreko Hegazkinaren piezak egiten ditu.

## Kakitzat-en kanpaina

Armagintza daukaten herri batzuetan karpa informatiboa jarriko da jarduera ekonomiko honek dauzkan kalteak azaltzeko. Horretaz gain, Kakitzat-en asmoa da enpresa hauen atetara hurbiltzea bere birmoldaketa exigitzeko. Hau dela eta, alde batetik, hainbat administrazio publikoren aurrekontuen desmilitarizazioa eskatzen dugu eta bestetik armagintzei diru-laguntza atzera-egitea.

informazio gehiago jasotzeko:

[koordinadorakakitzat@yahoo.es](mailto:koordinadorakakitzat@yahoo.es)

Orain dela 2 urte 45.000 lagunek Herri-tar Lege Ekimen bati sostengua eman zioten; bertan, armagintzari dirurik ez emateko eskatu zioten Euskal Parlamentuari. Oraindik ere ez da egin inolako urratsik horretarako. Hori hala, armagintza politika honek sufrimendua, gerra eta suntsipena baino ez dakarzkien politika hau berau pairatzen duten herriei. Hauek dira Bizkaiko armagintza nagusiak:

## IRAGARKIA

gaztetxeko edozein ekintzaren argazkirik izanez gero, ekarri gaztetxera astelehen edo ostegun iluntzean artxibo bat osatzen ari gara-ta, eskerrik asko.

# ESKUBIDEEN DEFENTSAN

Sakabanaketak esku ta beso luzeak ditu, eta askotan urruntasunaren mina gainetik kendu ezin badugu ere informazioaz eta eguneroko lanaz aurre egin behar diogu. Beraz, euskal presoak herriratzearen bidean, horra gure auzokide Nerea, Zigor eta Oskarrek bizi duten eta bizi izan duten egoeraren inguruko berri batzuk.

## Nerea

Badajozeko espetxean preso, herritik, senide ta lagunengandik 800 kilometrora.

Frantzian 5 urte ta 3 hila-beteko zigorra bete ondoren estatu espagnolera extraditatu izan zen. Azken 8 hilabeteak Soto del Real eta Badajozeko espetxetan eman dituelarik. Bere extradizioa motibatu duen epaiketa urtarrilaren 16ean hasiko da entzutegi nazionalan.

Adi epaiketa salatzeko mobilizazioei zein bertara joateko autobusari!!

Gauzak horrela, ezinbestekoa ikusten dugu euskal presoek eskubideen defentsa egitea, sakabanaketaren atzean dauden helburu eta eragileei mozorroa kenduz, idatzi ta informazioak zabal-

## Zigor

Galiziako Curtis espetxean preso, herritik, senide ta lagunengandik 600 kilometrora. Sakabanaketaren eredu argia dugu Zigor, Madrilgo Alcala Mecon 450 kilometrora preso egon ondoren orain 150 kilometro urrunago bidali dute geratzen zaion zigorra betetzera, bere egoera ahalik eta gehiago zailduz.



duz zein ekimen ezberdinak plazaratuz.

Adi egon bada hurrengo hilabeteetako zenbakiei hemen aurkituko bait gaituzue eta hasi prestatzen datorren

## Oskar

Madrilgo Valdemoro espetxean preso, herritik, senide ta lagunengandik 500 kilometrora.

Soto del Real eta Navalcarnero espetxeetatik pasa ondoren Valdemorora bidali dute geratzen zaion zigorra bertan betetzera. Kontutan hartu behar da azken espetxe hau dela egon denetik urrunen dagoena.

Abenduaren 29an antolatu behar dugun Amnistiaren Aldeko II. Egunerako...

**EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA DAGOZKIEN ESKUBIDEEN JABE!!**


# BasetxeSarea. blogspot.com

BasetxeSarea, hori da Basetxe Gaztetxetik Trapagarango gazteontzat sortu den interneterako atari berriaren izena.



## Helburua:

BasetxeSareak Trapagarango eta inguruko albisteak gaurkotasunez ezagutarazteaz gain, herriko elkarte, lonja, bajera, koadrilen arteko topagunea izan nahi du.



## Horretarako...

Eztabaidagune bat izango du Sareak bere baitan. Bertan gai ezberdinak proposatuko dira bakoitzak bere iritzia eman dezan eta horietako batzuk PIKOTXAn argitaratuak izanen dira.

## IRAGARKIA



GABON ZAHAR HONETAN  
(ABENDUAK 31) MEXIKAR GAUA  
GAZTETXEAN!

Trapagarango  
basetxegaztetxea

PRESTA HADI!

# Basetxe Gaztetxea; aurrera begira

**Bi izan ziren Urriaren 16ko Asanblada orokorrean jorratu ziren gaiak: GaztEguna eta Basetxe Gaztetxearen antolakuntza.**

## GaztEguna:

Balorazio orokorra oso positiboa izan zen. Eguraldi txarra agertu arren herriko eta eskualdeko jende asko erakartzea lortu baitzen.

Herrian horrelako ekimen baten beharra ikusirik, GaztEguna urtero antolatzearabaki eta horren motorra izateko lan taldea osatu zen.

Guztira, GaztEgunean, 12.718€ inbertitu zituen Gaztetxeak eta 14.482€ eskuratu ditu. Beraz, balantze ekonomikoa ere positiboa da eta irabazi hori datorren urteko GaztEgunerako erabiliko da.



## Basetxe Gaztetxea:

Gazte Asanbladari ekimenen eta eraikuntza beraren gestioa errazteko lan talde ezberdinak osatzea erabaki zen. Lan talde horien guztien koordinazioa Gazte Asanbladaren esku uzten zelarik. Hauek dira sortutako eta berritutako lan taldeak:

**BasetxeKT komunikazio taldea**  
Basetxe Gaztetxeko komunikabideetatik (BasetxeSarea, PIKOTXA, Enbata) arduratuko den taldea berritu zen.

**GaztEguneko lan taldea**  
Datorren urteko GaztEguneko antolakuntza gidatuko duena.

**Lan eta obren lan taldea**  
Gaztetxeak behar dituen eraberritze lanen zuzendaritza taldea.

**Maketa lehiaketako lan taldea**  
GaztEguneko maketa lehiaketak izan duen arrakasta ikusirik, datorren urterako esperientzia errepikatzea erabaki zen.

**Gaztetxeko liburutegia atontzeko lan taldea**

## Zuen guztien parte-hartzea beharrezkoa

Proiektu honek arrakasta izan dezan, ezinbestekoa da Basetxeko gazteez gain herriko gazte sektore guztien partehartzea.

## Nola parte hartu?

Proposatuko diren gai ezberdinen inguruan iritzia ematen, auzo edo inguruan gertatu den zerbaiten berri ematen, koadriak edo elkarteak egingo duen edozer jakinarazten... Finean, blogari bizia ematen; herriko gazteon arteko komunikazio sare bat osatzen.

Hori egiteko aski da Basetxesarea.blogspot.com-en sartzea edo pikotxa@gaztesarea.net-era posta-e bat bidaltzea.

# ZUTIK EMAKUMEA! hautsi gure kateak!

## AZAROAK 25, Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteako Eguna

1960. urteko azaroaren 25ean Patria, Minerva eta Maria Teresa Miraval, Dominikar Errepublikakoak, euren senarrak kartzelara bisitatzera zihoazela militarrek bidean gelditu, kainaberaldi batera eraman, eta bertan, torturarik gogor eta bihotzgabeena jasan ondoren, hil egin zituzten. Emakume hauen omenez, Kolonbian 1981. urtean Latinoamerikar Jardunardi Feministetan parte hartu zuen dominikar taldeak egun hori Emakumeekiko indarkeriaren kontrako eguna izendatzea proposatu zuen. Orduetik hona, urtez urte, milaka eta milaka emakumek, gure kontra gauzatzen diren indarkeria mota ezberdinak publikoki salatzen egun ofiziala dela esan daiteke.

## Datuak datu...

Emakumeok etxe barruan pairatzen dugun indarkeriaren berri ematen digute komunikabideetan. Azkenengo urteetan ohitu egin gara eguneroko txarren inguruko albisteak ikustera telebista eta egunkarietan.

Baina emakumeenganako indarkeria ez da soilik esparru pribatuan ematen, hau da, ez da soilik mutil laguna edo senarraren eskutik etortzen. Emakumeok bestelako eremuetan ere indarkeri adierazpenak jasaten ditugu, estrukturala den indarkeria: kalean, jaietan, tabernetan, publizitatean, estetika eremuan, hedabideetan, txistek, esamoldeak... Ikaste-teeetan adibidez, hezkuntza sistema honek jendarte eredu patriarkala indartzen duen heinean, emakumeen zapalkuntza eta inbizibilitatea bultzatzen du.



**Aski da!**

Indarkeria ikasi eta transmititzen den jokatibidea da. Beraz, honekin bukatzeko neurri hezitzaileak beharrezkoak dira, emakume eta gizonen arteko errespetua eta parekidetasuna oinarritzat duen balore sistema eraiki behar dugu. Eta honetarako guztion laguntza eta borroka fundamentalak dugu. Emakumeon papera fundamentalak da, gu gara zapalkuntza hau pairatzen dugunok, beraz gu izan behar gara borroka honen zuzendariak: emakume, jaiki eta salatu!! Baina gizonak ere kriston papera jokatu behar dute, azken finean ez-parekidetasun hau, gizarte hau, guztiontzat txarragoa da. Bakoitzak bere burua hausnartuz eta gure jokabide matxistak identifikatuz eta aldatuz gizarte parekide eta justu batera hurbilduko gara. Guztion esku dago emakumeon aurkako indarkeriarekin amaitzea eta gizarte parekide eta justu bat eraikitzea!!!!

**AEBak**

**Eta hauek dira munduko jabeak???? Hau beldurra!**

<http://www.youtube.com/watch?v=QVbobdL3yi0&eurl=http://www.aporrea.org/internacionales/n101427.html>

**KURDISTAN**

**Zer gertatzen da KURDISTANEN? Informazioa bertatik jasotzea onena.**

Karlos Zurutuza euskaldunak Kurdistanen egindako 3 asteko bidaiaren kronika, ikusitakoa, loturak...

<http://www.argia.com/kurdistan>

Kurdistango berriak.

<http://kurdistanobserver.com>

**GU TA GUTARRAK**

**Unai Iturriaga eta Igor Elortzak bultzaturiko bertso proiektu berria, hemendik aurrera Euskal Herri osoan barna...**

Gutako bakoitzaren baitan hamaika gutar bizi da: gutar ameslaria, gutar axolagabea, gutar zintzoa, gutar eszeptikoa, gutar parrandazalea, gutar gaiztoa, gutar politikoa, gutar sexuala, sentibera, eroa...

Gutako bakoitza hamaika gutarren artean bizi da: Xalbador, Sarrionaindia, Groucho Marx, Maurizia, Corto Maltese, Joe Strumer, Mafalda, Xabier Lete, Fidel Castro, Marijaia, Bob Marley, Janis Joplin, Elgeta, Mahoma RIP...

<http://gutagutarrak.eu/>

## GORPUTZAREKIN KOMUNIKATZEN

Zer sentitzen dugu masa-je bat jasotzen dugunean? Nork ez du inoiz ukimena bitartez gorputzean sentitu daitezkeen sentsazioak frogatu? Nork daki zeintzuk diren bere gorputzeko tokirik sentikorrenak?

**Hilabete honetan jolas erotikoa bat burutuko dugu eta jolas guztietan bezala, sentsazioen praktika honetan ere arauak zehaztuko ditugu:**

1. Ariketa bakarrik zein bikoteka egin daiteke. Bakarrik egiten badugu, norberak bere gorputza ezagutzeko jarduera aproposa izango da. Oso tera, bikoteka bada, bikoteak gure gorputzeko zona erogenoak zeintzuk diren jakiteko erabili dezakegu. Bikoteka egiterakoan hasieran batek egingo du eta gero besteak.

2. Hasiara baten ezin

izango ditugu genitalak ukitu. Emakumeen kasuetan titiak ukitzea ere debekatuta egongo da.

3. Toki eroso eta lasai bat bilatu. Ez dugu gure etxeko atarian egingo, ezta kalean ere.

4. Musika jartzeko aukera egotekotan musika lasaia aukeratu. Eta ingurua, logela, egongela, ... kandelaz apaintzen badugu, egonaldia sekulakoa izango da.

5. Masajeak egiteko krema edo olioak erabili dezakegu laztanak egiteko orduan laban egiteko. Laztanak egiteko eskuak erabiltzeaz gain bestelako objektuak erabili ditzakegu lumak, pilota berreziak, rodiloak, ...

Biluzik eta etzanda gure gorputza edo gure bikotekidearena ezagutzen hasiko gara; horretarako gorputzean zehar ibilbide luze eta atsegingarri bat egingo dugu, geldiuneak eremu eta puntu ezberdinetan eginez. Atzamarrrak, atzamar buruak,

mingaina edo bestelako objektuak izango dira gure adiskideak eta haien laguntzaz sentsazio miragarriak biziko ditugu. Xuabe-xuabe, goxo-goxo, poliki-poliki, xamurki, emeki, gorputza ukitu, laztandu, miaskatu, muxukatu, igurtzi, . Geldiuneak egitea ezinbestekoa da gorputzeko atal ezberdinetan sentitzen duguna igartzeko. Ez dago gorputzean tokirik non hura ukitzean, laztantzean sentsaziorik bizitzen ez denik, plazerra sentiarazten ez denik, alegia. Gorputz guztia plazererako egina dago, sentsazioak bizitzeko eta biziarazteko. Horrek ez du esan nahi guztioi gauza berdinak gustatzen zaizkigunik. Bakoitzak bere gorputza ezagutu behar du sentsazio atseginak eta puntu erogenoak aurkitu arte. Burua, aurpegia, begiak, belarriak, ezpainak, lepoa, besoak, bularra, bizkarra, tripa, atzamarrak, hankak, izterrak, orkatilak, oinak,

behatzak,... sentrazio ezberdinetan zentratuko gara jarraipena emateko gure plazerren, desioen, laztanen, mundu honetan.

Orain arte genitalak alde batera utzi ditugu, hauek ukitu, laztandu, barik sentrazioak ere bizitzeko aukera dagoela ikustarazteko. Genitalak gaineratzeko ordua heldu da, hauek ikutzeko, miaskatzeko, laztantzeko, masturbatzeko. Zelako sentrazioak bizi izan dituzu? Genitalik gabe, sentziorik ez? Lepoan muxuak ematea nahiago duzula? Belarria miaskatzean orgasmoa moduko sentrazio bat nabaritu duzula? Gorputzak etengabe hitz egiten digu eta entzun besterik ez dugu egin behar, gure esku baitago, sentzazioen mundu honetan gozatzea!!!

GENITALAK GORPUTZEKO ATAL BAT GEHIAGO DIRA GOXATU GORPUTZ OSOAREKIN!!

KIXKUR

## AZAROAK 16 - OSTIRALA

Kar-Kar Deustuko Berbaizu Euskara Elkartearen gazte arloaren aurkezpen jaia:  
Done Petri plazan  
arratsaldeko 7etan

info+>[www.berbaizu.org](http://www.berbaizu.org)  
944471042

## AZAROAK 17 - LARUNBATA

Ikasle Eguna Usurbilen

info+>[www.ikasleabertzaleak.org](http://www.ikasleabertzaleak.org)

## AZAROAK 25 - IGANDEA

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna

## AZAROAK 29 - OSTEAGUNA

Lleidako Euskal Jaia

## GAZTE ASANBLADA

astelehenero 20etan

## TXALAPARTA TAILERRA

asteazkenero 19etan

## TXISTU TAILERRA

ostegunero 18etan



# LAGUN ETOR GUREKIN (GUK)

Lagun etor gurekin  
denak elkarrekin,  
badugu zer egin  
Gu ez gara lotsatzen  
etsaia nun hasten  
Han da gudukatzen.  
Gure odolez ta ontasunez,  
gure izatez dirade gosez,  
elkartasunez erakuts hortzak,  
elkarri josiz buru-gorputzak!

Batez, mendi eta oihanetan,  
pentze eta alorretan,  
bizi nahi dugu gure etxetan!  
Batez,  
laborarien auzia,  
ezin da irabazia  
nahi norbaitekin  
ta nor ez jakin.

“Lagun etor gurekin...” kantatzen zuen 70 eta 80.hamarkadetan GUK taldeak, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuko plaza eta frontoietan. Herriak hustu ez zitezen, kultur eta sozial arloko dinamikak piztu zitezen, gazteak herrietan antola zitetzen, euskara mantendu zedin, herria bere buruaren jabe izan zedin...

Lagun etor....

Biez,  
langile guzien mina,  
nagusientzat gaixtagiña,  
senda daitekea gure indarrez?  
Biez,  
nun ez den ari gogorka,  
ezin da egin borrokoa.  
Nahi norbaitekin  
ta nor ez jakin

Lagun etor...

Eta gaur egun ere... “lagun etor gurekin...” guztia baitugu aldatzeko, sortzeko, asmatzeko, egiteko Trapagaran euskaldun eta bizi baterantz, beste mundu baterantz...

“denak elkarrekin badugu zer egin!”.

GEROA GURE ESKU DAGO!

**PIKOTXA** Trapagaranen zabalitzen den boletin kritiko eta partehartzaile bat da, parte hartu nahi duenak bere aportazioa goian agertzen den helbide elektronikora bidaltzea besterik ez du...